

# R

bizikidetza- eta  
berradiskidetze-kultura  
berri baterako

2013  
indargunea

«Udalen eta eskolen arteko  
lankidetzaren proposamena»

baketik

2013ko urtarrila



bizikidetz- eta berradiskidetz-  
kultura berri baterako

2013  
indargunea

## Aurkezpena

2011ko urtarrilean Baketik-ek «Berradiskidetzeko Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urteko lehen hilabetean, geure gizartean bizikidetz- eta berradiskidetz-kultura berria bultzatzea helburu duen agiria aurkeztea da ekimenaren xedea.

Lehenengo agiriaren izenburua honakoa izan zen: «Berradiskidetz-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena», Baketik-ek ordutik gai honetan egin duen lan guztiaren oinarria izan den txostena. «2012 indargunea»ren izenburua «Bost proposamen zehatz» izan zen. Eremu desberdinetara zuzenduak zeuden: politikoa, udal mailakoa, hezkuntza, elkarteak eta eguneroko bizitza.

2013 Indarguneak kezka bati erantzun nahi dio. Bakea sendotuko, geure oraina humanizatuko, iraganeko urratuak erreparatuko eta etorkizunean berriro ez errepikatzea prebenituko duen bizikidetz-kultura berri bat sustatzeak arrisku bat dauka: ahaztea. Inertzia natural bat eta bat-bateko joera bat daude hori bultzatzeko.

Ahazteko inertzia hori antzeko beste prozesuetan ikusi den eta indarkeriaren amaierak dakarren erlaxazio sozial eta politiko logikoan jatorria duen joera da. Bat-bateko faktorea egungo krisi ekonomikoa da gizartearen, politikaren eta komunikabideen buruhauste-ahalmen ia guztia hartzen duena.

Testuinguru honetan, bizikidetzaren helburua bigarren mailako plano batera alboratua geratzen da. Hala ere, bake soziala sendotzeko eta bigarren mailako efektu kaltegarriak prebenitzeko, lehentasunen desplazamendu hau zuzentzea komeni da. Ezin dugu ahaztu azken hamarkadetan bizitako esperientzia etengabea: indarkeria, giza eskubideen urratzea, zatiketak eta krispazioa.

Elaboratu eta bideratu behar den gizarte eta politika mailako bizipen traumatikoa da gizartean gaizki onartzeak etorkizunean erreakzio-fenomeno ez desiragarriak sorraraztea ekiditeko, joera berdintsua bizi izan duten beste lekuetan gertatu izan den bezala.

Lehentasunezkoa da gizartean bizikidetz- eta berradiskidetz-kultura berri bati lehentasuna ematea. Baketik-en iritziz, helburu hori bi legegintzalditan sostengatu behar da, gutxienez. Bi jarduera-eremu daude horretarako bereziki estrategikoak direnak: udal mailakoa eta hezkuntza mundua. 2013 Indarguneak aliantza estrategikoa proposatzen du Udalen eta ikastetxeen artean bizikidetz- eta berradiskidetz-kultura berri baten alde.

## Proposamena

2013 Indargunearen proposamenak bost elementu ditu:

- **Esparrua.** Udalerri bakoitzean Udalaren eta herriko ikastetxeen artean akordio- eta lankidetzaren esparrua partekatzea proposatzen du Baketik-ek.
- **Edukia.** Baketik-ek iradokitzen duen akordioak diagnostiko bat eta bizikidetzari buruzko balioak eta heziketa bultzatzeko konpromiso bat ditu.
- **Diagnostikoa.** Diagnostikoak, jarrera pertsonalengatik, hezkuntza-ondoriotasunengatik edo kultura-joerengatik gatazka suntsitzaileak errazten dituzten lau muinak identifikatzen ditu.
- **Konpromisoa.** Gatazka suntsitzaileak prebenitzeko eta jarrerak, heziketa eta bizikidetzaren kultura bideratzeko lau muin alternatibo bultzatzean oinarritzen da.
- **Gonbidapena.** Akordio hori herri mailako beste gizarte-eragileei eta gizarte zibilari bere osotasunean zabaltzera gonbidatzen du proposamen honek.



bizikidetza- eta berradiskidetze-  
kultura berri baterako

2013  
indargunea

## Diagnostikoa: lau arrazoi bizikidetza hausteko

Era askotakoak dira bizikidetzaren joera suntsitzailean eragin dezaketen faktore sozialak, politikoak edo historikoak. Ez da hori gogoeta honen xedea. Bere helburua mugatuagoa da. Bizikidetzaren haustura-gatazkak erakartzen dituzten arrazoi kulturalak, hezkuntzazkoak edo jarrerazkoak identifikatzen saiatzen da. Eremu honetan, arrazoi horiek gizarte kulturaren zein norberaren pentsamoldean kokatuak egon daitezkeen lau muinetan daude. Denen ezaugarria da inposaketak, indarkeriak, giza eskubideen urraketak edo etikoak ez diren bideak erabiltzeak normalizatzen dutela.

·**Mugatuak garela behar bezala ez onartzea.** Praktikan arrazoi guztiaren jabe garela sentitzea esan nahi du. Prebentzio hori nahitaezko baldintza da bitarteko ez etikoen erabilera legitimatzeko. Honen arrazoa zabalduko gertakari batekin lotzen da: dogmatismoa.

·**Positiboa identifikatzeko gaitasun eskasa.** Praktikan, erantzun inposatzailearen alternatiba bakarra ikusteko joera bezala islatzen da. Ikuspegi horrek ez du uzten beste aukerarik ikusten. Bitarteko ez etikoak erabiltzea biktimismo sinplean justifikatzen da: «besteek egiten dutena okerragoa da eta ez dago beste irtenbiderik».

·**Geure kontzientzia etikoan eskas sakontzea.** Praktikan, bizikidetza-gatazketan dagokigunaz ez arduratzeko joera bezala adierazten da. Arazoa onen eta gaiztoen arteko dikotomia batera mugatzen duen manikeismoan babesten da, nor bere erantzukizunarengandik urruntzea ahalbidetzen duena.

·**Giza duintasunaren balio gorenaren sakontasun eskasa.** Praktikan, gatazketan defendatzen dugun arrazoa giza duintasunaren gaineratik jartzera darama. Sektarismoari, balio absolutua ematen diogun ideia baten defentsa kolektiboari eta amorerik ematen ez duenari lotutako bizikidetzaren deshumanizazioa dakar.

Gatazka suntsitzaileen, indarkeria-ekintzen edo giza eskubideen urraketen prebentzioak lotura zuzena dauka bizikidetza hausteko lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin. Modu samur, iraunkor eta eremu desberdinetatik osatutako bizikidetzarako lau heziketa-zutabe bultzatzea da prebentziorako alternatiba.

Gauzak horrela, Udalak eta ikastetxeak gizartean bizikidetza- eta berradiskidetze-kultura hori bultzatzeko eta sustatzeko erreferentzia pribilegiatuak dira. Hain zuzen ere, horregatik bultzatzen da ondorengo konpromisoa. Proposamen bat, oinarritzko dokumentu bat da, logikoki irekia herri bakoitzean hobetua, zabaldua edo ñabartua izateko.

## Konpromisoa: lau heziketa-esperientzia bultzatzea

Agiri honekin bat egiten dugunok ados gaude bizikidetza- eta berradiskidetze-kultura berria bultzatzea lau heziketa-esperientzia partekatzea dela. Pertsona mailan zein maila familiarrean, profesionalean edo politikoan lau puntu kardinal hauek bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

### Neure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea da bizikidetza

Gizakion izaera mugatua onartzeko heziketa-esperientzia bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu. Mugatuak gabela ohartzea da, ez dugula arrazoi osoa, geure bizitzan horrek zenbateko garrantzia duen konturatzea. Esperientzia hau bizitzea bitarteko ez-etikoak erabiltzeko prebentzio-modu bat da, dogmatismoarekin, egia absolutu baten jabe izatearen ustearekin justifikatzen delako bestela. Horrek, berriz, galdera erabakigarri honetara garamatza: «Zertan ez dut arrazoi osoa?».

### Zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea da bizikidetza

Esker ona bilatzeko heziketa-esperientzia bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu. Mugatuak izan arren aukera infinituak ditugula esan nahi du. Bizitzaren alderdi onak, positiboak, ederrak, batzen gaituztenak, aukerak... bereizten laguntzen digu. Hobeza edo saihestezina deritzoguna baino aukera hobeak beti daudela erakusten digu. Erabakigarria da, bai bizitzarako bai elkarbizitzarako, bitarteko ez-etikoak erabiltzeko aitzakia «beste biderik ez dago» izaten baita. Ardatz honi dagokion galdera, berriz, hauxe: «Zer alderdi positibo du egoera honek?».

### Edozein egoeretan neure erantzukizun etikoa onartzea da bizikidetza

Nork bere kontzientziari entzuteko heziketa-esperientzia bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu. Esperientzia-prozesu bat da. Denok dugu kontzientzia, eta zerbaiterako daukagu: aukera etikoak egiteko. Dogmatismo, amorru, oldarkortasun, beldur, egoismo... bulkada hutsa baino zerbait gehiago izan gaitezkeela ohartzea ahalbidetzen digu. Pertsona bakoitzaren kontzientzia etikoari denbora eta aukera ematen badizkiegu izango gara bulkada baino zerbait gehiago. Azaleko kontzientziari bakarrik entzuten diogulako jotzen dugu bitarteko ez-etikoak erabiltzera. Ardatz honi dagokion galdera zuzena, berriz, hau: «Zer dagokit niri?».

### Giza duintasunaren errespetuaren balio gorena onartzea da bizikidetza

Giza duintasunaren heziketa-esperientzia bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu. Gizaki guztioi zor zaigu errespetua. Esanahi sakona du baieztapen xume horrek. Geure buruaz egiten dugun edozein murrizketa baino gehiago garelako eta jartzen diguten edozein etiketa baino gehiago garelako zor zaigu errespetua. Kontzientzia hori erabakigarria da gizalegezko bizikidetza izateko. Bere kausa nagusiaren gainetik kausa goragoko bat (giza duintasuna) ezagutzen duenak bitarteko ez-etikoak erabiltzea prebenitzen du. Ikaskuntza honen irekieragaldera, berriz, hau da: «Zerk du lehentasuna?».

## ...eta ekimen zehatzak bultzatzea

Bakea sendotzea eta giza eskubideak babestea helburu duen bizikidetza- eta berradiskidetze-kultura berria bultzatzea lehentasunezkoa da. Oinarri hau hartuta, ondorengo ekimenak bultzatzeko borondatea adierazten dugu:

1. Bizikidetza-kultura berri baterako hezkuntza lan-eremu bat sortzea eta modu iraunkorrean mantentzea geure ikastetxeetan.
2. Geure herrietan bizikidetza-kultura berria dinamizatzeko organu bezala Bizikidetza-Kontseilua sortzea geure udalerrietan.
3. Udalen, ikastetxeen eta gizarte zibilaren artean bakoitzak geure ahaleginak koordinatzeko sinergia eta lankidetzak bilatzea.
4. (...)

Á  
R

acento  
2013

para una nueva cultura de  
convivencia y reconciliación

«Una propuesta de colaboración  
entre Ayuntamientos y escuelas»

baketik

Enero de 2013

## Presentación

En enero de 2011, Baketik puso en marcha el proyecto «Acentos para la reconciliación». Una iniciativa consistente en la presentación a principios de cada año de un documento orientado a contribuir a una nueva cultura de convivencia y reconciliación en nuestra sociedad.

El primer acento se tituló «Bases para enmarcar y promover de modo compartido un proceso de reconciliación». Un documento que ha servido de soporte a todo el trabajo realizado por Baketik en esta materia desde entonces. El «Acento 2012» se tituló: «Cinco propuestas concretas». Iban dirigidas a los ámbitos político, municipal, educativo, asociativo y de la vida cotidiana.

El Acento 2013 quiere dar respuesta a una preocupación. La promoción de una nueva cultura de convivencia que consolide la paz, humanice nuestro presente, repare los desgarros del pasado y prevenga su repetición en el futuro se enfrenta a un riesgo: el olvido. Hay una inercia natural y una tendencia sobrevenida que lo promueven.

La inercia hacia el olvido es una tendencia que se ha visto en otros procesos similares y que proviene de la lógica relajación social y política que trae el fin de la violencia. El factor sobrevenido es la actual crisis económica que ocupa prácticamente toda la capacidad de preocupación de la sociedad, la política y los medios de comunicación.

En este contexto, el objetivo de la convivencia se ve relegado a un plano de importancia secundaria. Sin embargo, a fin de consolidar la paz social y prevenir efectos secundarios, conviene corregir este desplazamiento de las prioridades. No podemos olvidar que, en las últimas décadas, hemos vivido una experiencia sostenida de violencia, vulneraciones de derechos humanos, divisiones y crispación.

Se trata de una vivencia social y políticamente traumática que debe ser elaborada y encauzada para evitar que, como ha ocurrido en otros lugares en situaciones similares, una mala asimilación de la misma en el cuerpo social provoque en el futuro fenómenos reactivos no deseables.

Es prioridad dar prioridad a una nueva cultura de convivencia y reconciliación social. A juicio de Baketik, este objetivo necesita verse sostenido, al menos, durante dos legislaturas. Hay dos ámbitos de actuación especialmente estratégicos para ello: el municipal y el educativo. El Acento 2013 propone una alianza estratégica de Ayuntamientos y centros educativos para una nueva cultura de convivencia y reconciliación.

## Una propuesta

La propuesta que contiene el Acento 2013 puede desmenuzarse en cinco elementos que la componen

- Un marco.** Baketik propone que en cada municipio se comparta un marco de acuerdo y colaboración entre el Ayuntamiento y los centros educativos de la localidad.
- Un contenido.** El acuerdo que Baketik sugiere contiene un diagnóstico y un compromiso de promoción de valores y educación en materia de convivencia.
- Un diagnóstico.** El diagnóstico identifica los cuatro núcleos que, por actitud personal, herencia educativa o corriente cultural, propician conflictos destructivos.
- Un compromiso.** Se basa en la promoción de cuatro núcleos alternativos para prevenir conflictos destructivos y orientar las actitudes, la educación y la cultura de convivencia.
- Una invitación.** Sobre la base de este acuerdo, esta propuesta invita a extender este acuerdo a otros agentes locales y a la sociedad civil en su conjunto.



## Un diagnóstico: cuatro causas de ruptura de la convivencia

Son múltiples los factores sociales, políticos o históricos que pueden incidir en una deriva destructiva de la convivencia. No es este el objeto de esta reflexión. Su pretensión es más limitada. Pretende identificar las causas culturales, educativas o de actitud que propician conflictos de ruptura de la convivencia. En este ámbito, estas causas se concentran en cuatro núcleos que pueden estar alojados tanto en la cultura social como en la mentalidad personal. Su característica común es que normalizan el recurso a la imposición, la violencia, la conculcación de derechos humanos o al uso de medios no éticos.

·**Una insuficiente conciencia de limitación.** En la práctica equivale a sentirse con toda la razón y creerse dueño de toda la verdad. Esta percepción es condición necesaria para legitimar el uso de medios no éticos. Esta causa se vincula a un extendido fenómeno, el dogmatismo.

·**Una insuficiente capacidad de identificar lo positivo.** En la práctica se manifiesta como la tendencia a ver solo una alternativa de respuesta impositiva. Este enfoque impide ver otras opciones u oportunidades. El recurso a medios no éticos se justifica, así, en un victimismo simplificador: «lo que hacen ellos es peor y no queda otra solución».

·**Una insuficiente profundización en nuestra conciencia ética.** En la práctica se expresa como la inclinación a desentendernos de la parte que nos toca en los conflictos de convivencia. Se apoya en un maniqueísmo que reduce el problema a una dicotomía de buenos y malos que permite inhibirse de la propia responsabilidad.

·**Una insuficiente interiorización del valor superior de la dignidad humana.** En la práctica induce a situar por encima de la dignidad humana la causa que defendemos en los conflictos. Implica una deshumanización de la convivencia que está asociada al sectarismo, la defensa colectiva e intransigente de una idea a la que dotamos de un valor absoluto.

La prevención de conflictos destructivos, fenómenos de violencia o vulneraciones de derechos humanos está directamente relacionada con la respuesta a estas cuatro causas de ruptura de la convivencia. La alternativa preventiva consiste en promover, de forma sencilla, sostenida y complementada desde distintos ámbitos, cuatro pilares educativos para la convivencia.

Los Ayuntamientos y las escuelas son, en este sentido, referentes privilegiados para promover y suscitar esta cultura de convivencia y reconciliación social. Precisamente, por ello, se impulsa el siguiente compromiso. Se trata de una propuesta, un documento base, lógicamente abierto a que en cada localidad pueda ser mejorado, ampliado o matizado.

## Un compromiso: Promover cuatro experiencias educativas

Quienes nos adherimos a este documento estamos de acuerdo en que impulsar una nueva cultura de convivencia y reconciliación es compartir cuatro experiencias educativas. Nos comprometemos tanto personal y vitalmente, como en el desempeño familiar, profesional o político a promover estos cuatro puntos cardinales:

### **Convivir es aceptar que mis perspectivas son siempre incompletas**

Nos comprometemos a promover la experiencia educadora de la aceptación de la limitación de la condición humana. Significa tomar conciencia de que somos limitados y de que no tenemos toda la razón. Es darnos cuenta de la relevancia de este hecho en toda nuestra realidad. Vivir esta experiencia previene el recurso a medios no éticos que tiende a justificarse en el dogmatismo, la certeza de defender una verdad mayor. En la práctica nos enfrenta a una pregunta determinante: «¿En qué no tengo toda la razón?».

### **Convivir es aprender a promover las oportunidades entre las dificultades**

Nos comprometemos a promover la experiencia educadora de la búsqueda del agradecimiento. Significa descubrir que a partir de nuestra limitación somos posibilidad infinita. Podemos y sabemos identificar lo bello, lo bueno, lo positivo, lo que nos une, las oportunidades... Esta experiencia nos permite descubrir que siempre hay una alternativa mejor que la que creemos inmejorable o inevitable. Esto es determinante para la vida y la convivencia porque el recurso a medios no éticos se ampara en el «no hay otra alternativa». La pregunta de apertura que acompaña a este punto cardinal es «¿Qué hay de positivo?».

### **Convivir es asumir mi responsabilidad ética en cada circunstancia**

Nos comprometemos a promover la experiencia educadora de la escucha de la propia conciencia. Es un proceso de experiencia. Tenemos conciencia para hacer elecciones con sentido ético. Nos permite descubrir que somos más que un mero impulso de dogmatismo, ira, agresividad, miedo, egoísmo... Somos más que impulso si damos tiempo y opción a la conciencia ética de cada persona. El recurso a medios no éticos se justifica en una escucha superficial de la conciencia. La interpelación directa de este punto cardinal es «¿Qué me toca?».

### **Convivir es comprender el valor superior del respeto a la dignidad humana**

Nos comprometemos a promover la experiencia educadora de la dignidad humana. Todos los seres humanos somos merecedores de respeto. Esta sencilla afirmación tiene un profundo significado de experiencia. Merecemos respeto porque cada persona es más que cualquier etiqueta o reducción de sí misma. Esta conciencia es definitiva para una convivencia civilizada. Previene el recurso a medios no éticos quien experimenta una causa superior a su propia causa: la dignidad humana. La pregunta de apertura de este aprendizaje es «¿Qué es lo primero?».

## ...e impulsar iniciativas concretas

Promover una nueva cultura de convivencia y reconciliación social que consolide la paz y proteja los derechos humanos es una prioridad. Sobre esta base, manifestamos también nuestra voluntad de promover las siguientes iniciativas:

1. Crear y/o mantener de un modo sostenido en nuestros centros educativos una línea de trabajo en educación para una nueva cultura de convivencia.
2. Crear en nuestros municipios un Consejo de Convivencia como órgano de dinamización de una nueva cultura de convivencia en nuestras localidades.
3. Buscar la sinergia y colaboración entre Ayuntamientos, centros educativos y sociedad civil para la coordinación de nuestros respectivos esfuerzos.
4. (...)